



**Arartekoaren ebazpena, 2008ko urtarrilaren 15ekoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zuzendua, famili hezkuntza edo *homeschooling*-ari buruz egindako kexaren inguruko bere esku-hartzea amaitutzat ematen duena.**

### Aurrekariak

1. Irunen bizi den familia batek, 2006-2007 ikasturtearen bigarren hiruhilekotik aurrera, lau seme-alabetatik bi eskolatuta zeuden ikastetxetik atera eta familian eskolatuko zituela erabaki zuen, *homeschooling* izenaz ezagutzen den famili hezkuntzaren eredu ez-formalarekin bat etorriz.

Erabaki horren ondorioz, Hezkuntzako Ikuskatzaitzak, eskola-absentismoko kasuetarako ezarritako protokoloari jarraiki, Fiskaltzaren esku-hartzea eskatu zuen eta bere eskaera honela arrazoitu zuen:

*“Toda la legislación educativa viene orientada a la asistencia diaria al centro docente, al cual se le da un papel preponderante en la articulación del sistema educativo.*

*La Administración educativa debe inspeccionar si esa asistencia está garantizada dado que el Estado está obligado por la Constitución a garantizar el derecho a la educación. Cuando exista la certeza de una conducta absentista, como en este caso, se puede afirmar que no se está cumpliendo la vía ordinaria prevista para una educación integral. Por consiguiente, el interés superior del menor nos obliga a dar cuenta de ello al Ministerio Fiscal.”*

Hezkuntzako Ikuskatzaitzaren eskaeraren ondotik, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Fiskaltzak zegozkion ikerketa-eginbideei ekin zien (15/07).

Eginbide horiek izapidetzerakoan, eta 2007-2008 ikasturte berria hastearen ondorioz, Fiskaltzak bi adingabe horien eskolatze egoera zein zen adieraz zekiola eskatu zuen. Orduan berretsi zuen Hezkuntzako Ikuskatzaitzak familiak *homeschooling*-aren hezkuntza-aukera beste bi seme-alabei ere aplikatu ziela (bi seme-alaba hauek beste ikastetxe batean eskolatuta egon ziren).



Eginbide horiek zabalik jarraitzen dute.

Hasiera batean, adingabe horien gurasoek eskatu zuten Ararteko erakundearen esku-hartzea, beren seme-alabak formalki eskolatzeari uko eginez hartu zen erabakia izaten ari zen ondorio larriengatik.

Hala ere, garbi utzi behar dugu familia honek hezkuntza-eredu honen alde agertu diren beste hainbat familiaren laguntza jaso duela beren beregi. Laguntza eskaini diotenen artean, bereziki azpimarratu beharrekoa da Hezkuntza Libreko Elkarteak (ALE) emandakoa. Elkarte hori 2002an sortu zen, administrazio publikoen eta seme-alabak familian hezten dituzten (*homeschooling*) familien arteko komunikazio kanala izan zedin.

2. Gure esku-hartzea nondik bideratu behar genuen aztertzerakoan, zentzuzkoa iruditu zitzaigun Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza eskatzea, ez bakarrik Fiskaltzaren esku-hartzeak eragin izan zitzakeen ondorioak zehatz-mehatz ezagutzeko, baizik eta baita familian hezteko eredu ez-formal honi dagokionez EAEko Hezkuntza Administrazioak zuen iritzi arrazoituaren berri izateko ere.

Laguntza-eskaera horren bidez, Fiskaltzak hasitako eginbideen inguruan burututako izapideen berri izan dugu (lehen esan bezala, eginbide horiek zabalik jarraitzen dute). Bien bitartean, familiak bere aukera pedagogikoarekin (hots, seme-alabak familian heztearekin) bat etorri jarraitzen du adingabeak hezten.

Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ez du inolako iritzi edo baloraziorik eman hezkuntza-aukera honen inguruan eta behin eta berriro aipatu du bere lana hezkuntza-komunitatean dauden agenteek indarrean dauden arauak betetzen ote dituzten jakinaraztea dela, eta ez horren inguruko iritzia ematea.

3. Era berean, Herriaren Defendatzailearen 2006ko urteko txostenean hezkuntzaren arloan gai nabarmenetako bat *homeschooling* izeneko fenomeno (hezkuntza-prozesua familian gauzatzea, ikasleak eskolatu gabe) izan zela jakinda eta, orobat, erakunde horrek Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan informazio izapideei ekin ziela hezkuntza-formula hori antolatu eta, hala bazen, onartzeko egon zitezkeen proiektu arautzaileen berri eman zedin, Herriaren



Defendatzailearen laguntza eskatu genuen izapide horiek zer emaitza izan zuten jakin ahal izateko.

Eskaera horri erantzunez, Herriaren Defendatzaileak esan digu, informazio izapide horien ondotik, Hezkuntzako Idazkaritza Nagusiak honakoa adierazi diola erakundeari:

*“1. El Centro para la Innovación y Desarrollo de la Educación a Distancia - CIDEAD- fue creado por Real Decreto 1180/1992, de 2 de octubre, y tiene entre sus objetivos, según se señala en su artículo 1.º, «la atención educativa a los alumnos que sigan las enseñanzas a través de esta modalidad, en los casos en que por concurrir circunstancias excepcionales sea necesario», señalando, asimismo, en la exposición de motivos que «la educación a distancia puede servir para garantizar el derecho a la educación de los alumnos no adultos que, por circunstancias personales, sociales, geográficas u otras de carácter excepcional, se ven imposibilitados de seguir la enseñanza a través del régimen presencial ordinario».*

*2. Si bien los vocablos enseñanza y educación no son sinónimos de escolarización, término que no aparece en nuestro ordenamiento, con el fin de preservar el derecho a la educación recogido en el artículo 27 de la Constitución Española y la obligación que la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, establece en su artículo 4.1. el CIDEAD requiere de los alumnos menores de edad, que solicitan su matriculación en el mismo, una autorización al efecto de la Inspección educativa de su Comunidad Autónoma o del Ministerio de Educación y Ciencia.*

*3. El CIDEAD no tiene conocimiento de ningún proyecto dirigido a establecer modificaciones normativas para el reconocimiento en el ordenamiento educativo de la validez de la fórmula educativa propugnada por el formulante de la queja de referencia, ni por su parte prevista su proposición.”*

Azken batean, ez dirudi inolako ekimenik jarri denik abian hezkuntza-formula hori onar dadin sustatzeko, baina Urrutiko Hezkuntzaren Berrikuntza eta Garapenerako Zentroa (CIDEAD) aipatu edo iradoki da hori bideratzeko.



## Gogoetak

1. Azaldu dugun bezala, kasu honetan, familiak hartu duen erabakiak, alegia, bere seme-alaben eskolatzeari uko egin eta, horren ordeztan, famili hezkuntzako ereduak (*homeschooling*) aukeratzeak, Hezkuntzako Ikuskatzailetzak hainbat jarduerak garatzea eta, orobat, Fiskaltzak esku hartzea eragin du.

Egoera horretan, gogoan izan behar dugu oso erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikuluan jasota dagoen ez esku hartzeko legezko betebeharra. Manu horrek beren beregi ohartarazten du Arartekoa ez dela ebazpen judizialaren zain egon daitezkeen kexak banaka aztertzen hasiko.

Hortaz, Gipuzkoako Probintzi Auzitegiko Fiskalak une honetan esku artean dituen ikerketa-eginbideetatik ateratzen dena erabat errespetatzen dugula adierazteaz gain, esan behar dugu ezin dugula Fiskaltzaren eginbideen xede den gaia aztertzen hasi eta Hezkuntza Administrazioaren jarduteko moduaren gaineko balorazio irizpena eman.

Nolanahi ere, uste dugu, gure eskumenez baliatuta, badugula hausnarketa egin dadila eskatzerik, eta halaxe egin behar dugula. Esku artean dugun kasuko elementuak ikusita, hausnarketa horrek famili hezkuntza, *homeschooling* izenaz ezagutzen dena, hezkuntzari buruzko legeriara egokitzeko zer aukera dauden aztertu behar luke. Azken batean, horixe da ondorio hauekin bilatzen duguna; hau da, hezkuntza-aukera hau legez onartu ote daitekeen hezkuntza-komunitate osoarekin eztabaidatu behar dela agerian uztea.

2. Gure ustez, Ana M<sup>a</sup> Redondo irakasleak hezkuntza-eredu honen legezotasuna eta konstituzionaltasuna defendatzeko *Defensa de la Constitución y enseñanza básica obligatoria* bere liburuan ongi asko iradokitzen duen bezala (Hezkuntza Libreko Elkarteak bere egin ditu haren arrazoibideak), duela gutxira arte hezkuntzaren arloko auziak hezkuntzarako eskubidea erabiltzearen ingurukoak izaten ziren, nola pertsonen euren erabiltzen zutenean hala prestazio gisa ematen zenean, baina, azkenaldian, beste errealitate bat ikusten ari gara, azaldutako gatazketatik gero eta gehiago derrigorrezko irakaskuntza egiteko betebeharrarekin erlazionatuta baitaude.



Horrela, kasu batzuetan, derrigorrezko eskolatze gisa hartuta dagoen oinarrizko irakaskuntza jasotzeko betebeharrari uko egiten zaiola ikus dezakegu. *Homeschooling*-aren alde egiten duten familien kasuan, horiek ziur daude legez ezarrita dagoen hezkuntza-eredu formala ez dela hezkuntza-eredu gisa eurek nahi dutena.

Beste kasu batzuetan, derrigorrezko hezkuntzari neurri batean bakarrik jartzen zaizkio oztopoak, arrazoi kultural eta erlijiosoak direla medio. (Adibidez, adingabeei transmititu nahi zaien eredu erlijioso eta kulturaletik begiratuta egokitzen ez diren diziplina jakin batzuk ikastea nahi ez denean).

Ararteko erakundean, hauxe da lehen aldia honelako kexa bat jasotzen duguna; hau da, lehen aldia da familia batek bere seme-alaben hezkuntzaz zuzenean arduratzeko aukera erabili nahi duela adierazi diguna. Nolanahi ere, badakigu erakunde homologoek aurrez ere izan dutela halakoak aztertzeko aukera.

Andaluziako Herriaren Defendatzaileak, 2005eko urteko txostenean, argi eta garbi adierazi zuen kontu honen inguruan zuen iritzia. Bere ustez, Espainiako Konstituzioak (EK), hezkuntzarako eskubideaz hitz egiterakoan, ez du ezartzen prestakuntza, derrigor, adingabeak hezkuntza-sistema formalean eskolatuta izan behar denik. Hori esanda, Hezkuntza Administrazioari eskatu zion azter zezala ea beharrezkoa den ordezkoko hezkuntza-sistema arautzea, gero eta zabalduagoak dauden hezkuntza-jokabideak legez ez arautzeak kaltea baino ezin eragin baitieziaieke tartean diren adingabeei eta beren familiei.

Bestalde, Espainiako Herriaren Defendatzaileak, 2006ko urteko txostenean, errealitate horren berri eman zuen, baita Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan hasitako informazio izapideen berri ere. Hirugarren aurrekarian esan dugun bezala, izapide horiei esker, hezkuntza-formula hori onar dadin sustatzera bideratutako ekimenik ez dagoela egiaztatu ahal izan dugu.

3. Hain zuzen ere, EKren 27.4 artikulua oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela dio, baina ez du eredu jakin bat zehazten, oinarrizko irakaskuntza horrek eskolatzearen sinonimo izan behar duela esateko. Legegileak interpretatu du, Konstituzioko manu horren arabera, derrigorrezko irakaskuntza eta derrigorrezko eskolatzea berdinak direla. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organiko berrian, 4.2 artikuluan dio oinarrizko



irakaskuntzak, pertsona guztientzat derrigorrezkoa eta doakoa denak, hamar urteko eskolatze aldia barneratzen duela.

Era berean, EKren 27.4 artikulua oinarriko prestakuntza derrigor jaso behar dela dioenez, neurriak hartu behar dira hori betetzen dela fiskalizatzeko. Ildo horretatik, Irungo familia honen kasuan zabaldu diren ikerketa-eginbideek eurek euskarri arautzaile garrantzitsua dagoela adierazten dute (hezkuntzari eta adingabeei buruzko legeria, etab.); euskarri hori oinarriko hezkuntza izateko betebeharra egoki betetzen dela fiskalizatzera bideratutako jardun ororen oinarria da.

Azken ikuspegi hori kontuan hartuta, gure ustez, komenigarria da agerian uztea, hezkuntza-eredu ez-formal horiek defendatuta ez direla, inolaz ere, eskola-absentismoa kontrolatzeko era horretako neurriak zalantzan jartzen, izan ere, neurri horien bidez, adingabeei arreta egokia eskaintzea arriskuan jar dezakeen eskolatze betebeharra ez bete ez dadila eragotzi nahi da. Arazoak, hain zuzen ere, zuzeneko eskolatzeari uko egiteko erabakia, gurasoen eta/edo tutoreen zabarkeriaren ondorioa izan ordez, seme-alabak ezarritako hezkuntza-sistematik kanpo hezteko erabaki arrazoitu eta kontzientearen ondorioa denean sortzen dira.

Aurrekoaren ildotik, uste dugu interesgarria dela ohartaraztea, halaber, kontu honi buruz ondoz ondotik izan diren erabaki judizialek zigortu egin dituztela jarrera absentistak, horiek adingabeei arretarik ez eskaintzearen edo abandonatzearen ondorioa zirenean. Alabaina, eskolatze ezak adingabeak ez heztea ekarri ez duenean, auzitegiak eurak izan dira lehenak era horretako gatazkak aztertu eta konpontzeaz beste instantzia batzuek arduratu behar dutela azpimarratzen.

Horren adibide gisa, Auzitegi Gorenaren 1669/1994 Epaia aipa dezakegu, urriaren 30ekoa (erf.: Aranzadi RJ 1994/8334). Epaia kategorikoa da, honela baitio: “...*debemos mantener el derecho penal alejado de estos debates y evitarle la tentación de entrar de manera ligera, insegura y peligrosa en la perenne discusión sobre la idoneidad de los modelos educativos*” ; para después afirmar que: “*si bien la libertad de creación de centros docentes incluye la posibilidad de crear instituciones docentes o educativas que se sitúen fuera del ámbito de las enseñanzas regladas, la acción educativa está limitada por el respeto a los derechos fundamentales y por la necesidad de proteger a la*



*juventud y a la infancia. Esta posibilidad excluye del tipo penal, los modelos de enseñanza que se desarrollen en el ámbito estricto de un núcleo familiar clásico o incluso en comunidades cerradas de estructura cuasi-familiar sin perjuicio de la indeclinable obligación de los poderes públicos de velar por el cumplimiento de las previsiones mínimas que no son otras que garantizar el respeto a los principios constitucionales”.*

Hain zuzen ere, jurisdikzio eta zigor ordenako erabaki hori hartzea eragin zuen arazoak (“*Niños de Dios*” taldearen kasua) Konstituzio Auzitegian zenbait babes errekurtsio aurkeztea ere ekarri zuen; horiek, beharbada, halako kasuetan ezkutuan dagoen gatazka konstituzio egoitzan konpontzen lagundu ahal izango zuketean, alegia, derrigorrezko irakaskuntza ezartzearen eta gurasoek EKren 16. eta 24.3 artikuluetan onartzen den askatasun ideologiko eta erlijioso gisa duten hezteko askatasunaren arteko gatazka.

Hala ere, Konstituzio Auzitegiak ez zuen irizpenik eman nahi izan, bere ustez, ez zelako hezkuntzarako eskubidea urratu. Hori dela eta, egun, oraindik zabalik dago, legegileak egindako interpretazioari jarraiki, oinarrizko irakaskuntzak eskolatzearen sinonimo izan behar duela diotenen eta, Konstituzioaren esparruan, beste interpretazio bat ere egin daitekeela diotenen arteko eztabaida.

Hortaz, gure inguruko herrialdeetako esperientzia konparatuari jarraiki (honek garbi uzten baitu legearen ikuspegitik ere eman behar zaiola irtenbidea, eta ez bakarrik jurisprudentiaren ikuspegitik), gomendagarria litzateke hausnarketa egitea eta, horren bidez, indarrean den hezkuntzako legeria berrikustea, betiere, konstituzionaltasunaren esparruan.

4. Puntu honetara helduta, eta *homeschooling*-aren moduko beste hezkuntza-aukera ez-formal batzuei buruzko eztabaidan sar daitezkeen beste ordena bateko alderdiak bazter utzita (arrazoi pedagogikoak, etab.) eta, beraz, ikuspegi juridiko soilera mugatuta, uste dugu une egokia dela hezkuntza-eredu honen aldekoek Konstituzioaren babespean dagoela esateko ematen dituzten arrazoiak aipatzeko, labur-labur bada ere.

Horrela, Ana M<sup>a</sup> Redondo irakasleak *Defensa de la Constitución y enseñanza básica obligatoria* bere liburuan azaltzen duenarekin bat etorritik (lehen esan bezala, Hezkuntza Libreko Elkarteak –ALE– bere egin ditu haren arrazoibideak), Konstituzioak ez du derrigorrezko eskolatzea egiera behartzen.



Aitzitik, ezartzen duena derrigorrezko oinarritzko hezkuntza da (horren helburua pertsonaren erabateko garapena da, bizikidetzako printzipio demokratikoak eta oinarritzko eskubideak eta askatasunak errespetatu daitezkeen).

Bere iritziz, EKren 27. artikulua haztatu egin behar diren hainbat eratako eskubide eta ondasun juridikoak onartzen ditu. Ildo horretatik, irakasteko askatasunak (alegia, askatasun ideologikoaren eta ideien proiektzioak) seme-alabak metodologia eta pedagogia jakin bati jarraiki hezteko ahalmena ere barneratzen du. Metodologia eta pedagogia horiek hezkuntza-sistema orokorra finkatzen duenean legegileak ezartzen dituenetik aldentu daitezke.

Irakasle horren iritziz, Konstituzioak irakaskuntzaren xedeak zehazteak adingabeak ardurapean dituzten eta *homeschooling*-aren alde egiten duten pertsonak horiei heziketa egokia ematera behartzen ditu. Heziketa horren bidez, bai ezagutzaren ikuspegitik bai oinarritzko eskubideak eta balio demokratikoak errespetatzaren ikuspegitik, haien garapen orokorrerako beharrezko eduki guztiak transmititu behar dira. Horren ondorioz ere botere publikoek ofizialak ez diren irakaskuntza horiek ikuskatzeko ahalmena dute.

Bere ustez, eta azken batean, famili heziketako hezkuntza-eredu hau ez onartzeak jardura hau konstituzionala den ala ez den baloratzeko erreferente gisa erabili behar den proportzionaltasun irizpidea gainditzen du. Irakasteko askatasunari muga jakin batzuk jartzea egokia izan daitekeen arren (beharrezkoa baita guztiek izatea derrigorrezko oinarritzko hezkuntzarako eskubidea eta ororen interesekoa baita pertsona guztiak printzipio demokratikoetan eta oinarritzko eskubideetan oinarrituta hezteak), derrigorrezko eskolatzea ezartzea ez da erabat beharrezkoa (*homeschooling*-a onartuta dagoen gure inguruko herrialdeen errealitate konparatua aintzat hartuta) eta arrazoizkoa ere ez da (gurasoek, beren betebeharrak alde batera uzteko asmorik gabe, beren seme-alabei banakako hezkuntza eskaini nahi diete).

5. Administrazio publikoen jardun eta politiketan pertsonen eskubideak babesteko erakunde gisa dugun leku honetatik, uste dugu gure ekarpenak aurreko atalean ere aipatu den alderdi batean jarri behar duela. Adingabeen eta nerabeen hezkuntzak antolamendu juridikoan bildu eta onartutako giza eskubideetan eta horien euskarri diren balioetan oinarrituta egon behar du. Horrela, botere publikoen ardura eta betebeharra da gure adingabeek jasotzen duten hezkuntzak aipatu eskubideak eta balioak ikas ditzatela eta horiez jabetu daitezela





bermatzea. Ondorioz, etorkizunean ezar litekeen eskolatu gabeko irakaskuntza arautuz gero, adingabeen erabateko garapena bermatu behar izango da. Horren bidez, beharrezko gutxieneko edukiak ikasteaz gain, biztanleen eskubide eta askatasunen errespetuan eta bizikidetzaren demokratikoko printzipio eta balioetan oinarrituko da hezkuntza.

### Ondorioak

Horregatik guztiagatik, erakunde honen ustez, desiragarria litzateke euskal hezkuntza-administrazioak eztabaida pizten saiatzea eta, horren baitan, haren eskumen eremua kontuan izanda, *homeschooling*-aren moduko hezkuntza-eredu alternatiboak legez onartzearen zilegitasunari buruz hausnartu ahal izatea.

Hala ere, badakigu, orobat, derrigorrezko eskolatzea ez beste hezkuntza-aukera batzuen inguruan egindako edozein arau proposamen edo ekimen ere gure erkidegoaren esparrua gaituzten duen eztabaida-eremuan aztertu behar dela, EKren 27. artikulua garatzeko oinarrizko arauetan eragiten duen heinean.